

**Press release****Gala Knörr: *Party is Over, Long Live the Party*****Exhibition Dates: October 17 through November 9, 2024**

Pablo's Birthday is pleased to present *Party is Over, Long Live the Party*, the gallery's second solo exhibition with **Gala Knörr**. Knörr's practice uses painting to reflect on the power of images and investigate their impact on our collective consciousness. Through research-based initiatives, Knörr begins at the pictorial, incorporating mediums such as installation, performance, video, and writing as a way to examine pop culture and the construction of shared histories.

*Party is Over, Long Live the Party* was inspired by Knörr's own experience attending raves in the UK. The project originated from her video work *ALLODOXAPHOBIA*, which explored the memetic potential of the People's Vote March in London in October 2019. At the end of the march, she encountered an impromptu anti-Brexit rave in Trafalgar Square—an experience that sparked her fascination with the distinctive ways people engage in protest. Knörr connected the similarities between this event and the Freedom To Party march at the square in January 1990, where almost 10,000 people danced against the Graham Bright Bill that would outlaw rave parties. These two simple acts of dissent synthesize the connection between protest as an expression of joy and joy as a radical weapon of transformative protest, forging a link between the act of demonstration and the act of celebration.

Pulling images from her oeuvre, film, records, her own photographic archive, and personal experiences, Knörr offers a glimpse into the origins of rave in other European contexts; a focus on Belgium's New Beat movement and its overwhelming influence on the youth, the arts, and social culture. Knörr includes playful portraits of influential figures and large-scale drawings of iconic nightclub façades, such as *Ancienne Belgique Night Club* and *Boccaccio*. Utilizing canonical references like Pieter Brueghel The Elder's drawing of the St. Vitus dance or Matisse's *La Danse*, 1910—where people dance frantically—Knörr highlights the epicenters of the scene. It was at The Ancienne Belgique where DJ Dikke Ronny pioneered the New Beat sound by altering A Split Second's song 'Fresh' from a 45 rpm tempo to 33 rpm, creating a distinctive rhythm that defined clubs like *Boccaccio*. Inside these spaces prominent figures, such as Confetti's Peter Renkens mimed performances on playback and the techno legend CJ Bolland helped shape the collective imaginary of the early 90s and the enduring legacy of New Beat.

Through the creation of these images, Knörr weaves a perspective on this history. *Party is Over, Long Live the Party*, invites viewers to reflect on emotions and histories that shaped youth culture and its effects on contemporary society that have become a vital part of the world we live in. This exhibition not only celebrates the power of collective experience but also honors the rich history of the ecologies, architectures, and social contexts surrounding the birth of house music and rave culture in the EU honing in on the tenet of the rave as an act of resistance.

**Gala Knörr** (b. 1984, Vitoria-Gasteiz, Spain) is a visual artist, writer and researcher at EHU/UPV, a graduate of Central Saint Martins, and Parsons Paris. Knörr has exhibited in various museums and galleries internationally, most notably including Guggenheim Museum (Bilbao); DA2 (Salamanca); CentroCentro (Madrid); La Casa Encendida (Madrid); Azkuna Zentroa (Bilbao); and La Térmica (Málaga). In 2017, she participated in The Solomon R. Guggenheim Museum's Basque Artist Program and has also taken part in residencies at Cité Internationale des Arts (Paris) and MORPHO (Antwerp), among others, which have nourished the elasticity of her practice and deepened her exploration of various topics pertaining to popular culture. She currently lives and works in Bilbao, Basque Country, Spain.

## Prentsa-oharra

**Gala Knörr: Party is Over, Long Live the Party, ‘Amaitu da festa, gora festa’**  
**Erakusketa-datak: 2024ko urriaren 17tik azaroaren 9ra**

Pablo's Birthday-k atsegin handiz aurkezten du *Party is Over, Long Live the Party*, galeriak Gala Knörrekin eginiko bigarren bakarkako erakusketa. Knörren jarduteak pintura erabiltzen du irudien ahalmenaz hausnartzeko eta irudiok gure kontzientzia kolektiboan duten eragina arakatzeko. Ikerketan oinarritutako ekimenen bidez, lan piktorikotik abiatzen da Knörr, geroago beste bitarteko batzuk gehitz, hala nola instalazioa, *performancea*, bideoa eta idazketa, pop kultura eta historia partekatuen eraikuntza aztertzeko modu gisa.

Erresuma Batuko rave festetan parte hartuz Knörrek berak bildutako esperientzian inspiratuta dago *Party is Over, Long Live the Party*.

Proiektuaren ernamuina haren ALLODOXAPHOBIA bideo-sorkuntza izan zen; 2019ko urrian Londresen egin zen People's Vote ('Herriaren botoa') izeneko manifestazioaren potentzial memetikoa aztertu zuen lan hartin. Martxa hura bukatzean, brexitaren aurkako rave inprobisatu batekin egin zuen topo Knörrek Trafalgar Square-n, eta esperientzia horrek lilura piztu zion jendeak protesta egiteko dituen modu bereizgarriengatik. Knörrek gertaera haren eta 1990eko urtarilean egin zen Freedom To Party ('Festarako askatasuna') manifestazioaren arteko antzekotasunak lotu zituen, orduan ia 10.000 lagun dantzatu baitziren rave jaiak legez kango utzi nahi zituen Graham Bright lege-proiektuaren aurka. Bi desadostasun-ekintza simple horiek protestaren eta pozaren arteko lotura laburbiltzen dute: protesta pozaren adierazpen gisa, eta poza, berriz, protesta eraldatzailaren arma erradikal gisa, hartara manifestazioaren eta ospakizunaren artean halako lotura bat sortuz.

Bere obratik, filmetatik, diskonetik, bere argazki-artxibotik eta esperientzia pertsonaletatik ateratako irudietatik abiatuz, raveak Europako beste testuinguru batzuetan izandako jatorriari begirada bat eskaintzen dio Knörrek; bereziki, Belgikako New Beat mugimenduari eta horrek gazteengan, arteetan eta kultura sozialean izandako eragin izugarriari.

Knörren lanak itzal handiko pertsonen erretratu jolastiak biltzen ditu, baita *Ancienne Belgique* eta *Boccaccio* bezalako kontzertu-areto edo dantzalekuen fatxada emblematicoak eskala handiko marrazkiak ere. Erreferentzia kanonikoak erabiliz, hala nola Pieter Brueghel Zaharraren San Vitoren dantzaren irudikapena edo Matisseren *La Danse* (1910) —non jendea modu frenetikoan ari baita dantzan—, eszenaren epizentroak nabarmentzen ditu Knörrek. Aipaturiko *Ancienne Belgique*hartan jaio zen, hain zuen ere, New Beat soinua, DJ Dikke Ronny-k A Split-Secondtaldearen *Fresh* abestia 45 rpm-ko tempotik 33ra aldatuz. Hala, *Boccaccioklubaren* —besteak beste— ezaugarri bihurtu zen erritmo bereizgarri bat sortu zen. Espazio horien barruan pertsona entzutetsuak aritu ziren —esaterako, Confetti's taldearen buru Peter Renkens— emankizunak playbackean antzeratuz, eta CJ Bolland teknoloaren mitoak 90eko hamarkadaren hasierako talde-iruditeria eta New Beat-aren ondare iraunkorra taxutzen lagundu zuen.

Irudi horien sorkuntzaren bidez, historia horren gaineko perspektiba bat lantzen du Knörrek. *Party is Over, Long Live the Party*-k gogoeta egitera gonbidatzen ditu ikusleak: gazteen kultura itxuratu zuten emozioei eta historiei buruzko gogoeta, eta horrek gizarte garaikidean izan dituen ondorioei buruzkoa, bizileku dugun munduaren funtsezko zati bihurtu baitira. Erakusketa honek, esperientzia kolektiboaren boterea ospatzeaz gain, house musika eta rave kultura EBn jaiotzearen inguruko ekologien, arkitekturen eta testuinguru sozialen historia aberatsa ohoratzen du, ravea erresistentzia-egintzatzat jotzen duen printzipioan arretatuz.

**Gala Knörr** (1984, Gasteiz) artista bisuala, idazlea eta ikertzailea da EHUn, Central Saint Martins eta Parsons Paris-en graduatua. Knörrek nazioarteko hainbat museo eta galeriatan egin ditu

erakusketak. Hona aipagarrienak: Guggenheim Museoa (Bilbo), DA2 (Salamanca), CentroCentro (Madril), La Casa Encendida (Madril), Azkuna Zentroa (Bilbo) eta La Térmica (Malaga). 2017an, Solomon R. Guggenheim Museumeko Euskal Artista Programan parte hartu zuen, eta Cité Internationale des Artseko (Paris) eta MORPHOKO (Anberes) egoitzetan ere parte hartu du, besteak beste, haren jardunaren elastikotasuna sustatu eta herri-kulturari loturiko hainbat gairen azterketan sakontzeko lagungarri. Gaur egun Bilbo du bizi- eta lantoki.

*Basque Translation by Garikoitz Knörr.*

*Gala Knörr's participation is made possible by the Etxepare Basque Institute.*